

RAUL FUENTESEN KASUAREN BERRIREKIAERA – TORTURAREN BIKTIMA

Raul Fuentes Villota Guardia Zibilek 1991ean atxilotu eta lau egun inkomunikazio erregimenean egon zen. Egun horietan zehar torturatu zuten, poliziak nahi zuena deklaratu zezan. Epaitegian gertatutakoa salatu bazuen ere, Entzutegi Nazionaleko 5. Instrukzio Epaitegi Zentralak diligentziak ez irekitzeaz gain, deklarazioak legeak ezartzen dituen bermeak errespetatuz egin zirela esan zuen. Erabaki hau errekurritu ez bazen ere, 2018an Raul Fuentesek Bilboko 9. Instrukzio Epaitegiaren aurrean salaketa bat tarteratu zuen, torturatu zuten Guardia Zibilen aurka.

Epaitegiak salaketa auto bidez artxibatu ondoren, Konstituzio Auzitegiak iritsi arteko ebazpen guztiak errekurritu egin dira. Konstituzio Auzitegiak ez du helegitea onartu, eta ondorioz, GEBehatokiarekin batera Nazio Batuen Torturaren Aurkako Batzordean kexa indibiduala tarteratu du, honek bere aldeko erabakia hartuz.

Batzordeak garrantzia handiko adierazpenak egin ditu: batetik, espainiar Estatuak ez zituela nahikoa ikerketa abiarazi; eta bestetik, torutra preskribaezina den delitu bat dela adierazi du. Azken adierazpen honen ondorioz, Estatuak bermatu behar du bere araudian tortura preskribaezina izatea. Hori horrela, 90 eguneko epean hartutako neurrien berri emateko eskatu du.